

2011KO ABENDUA
13. ZENBAKIA



A
L
D
I
Z
K
A
R
I
A

E
H
E
G
O
L
G
U
F

EUSKAL HERRIKO GORREN LAGUN ETA GURASOEN
ELKARTEEN FEDERAKUNDEA

EDITORIALA

GARAI ZAILEI AURREA HARTZEA

Orain dela 2 urte luzeetatik jasaten dugun krisi ekonomikoa ez da arintzen, eta gainera, ematen du horren ondorio txarrak oraindik okerragoak izango direla.

Hori guztia dela-eta, Herri Administrazioa beherantz doa maila guztietan (udal, probintzia, erkidego, estatu zein Europa mailan) eta azken bi ha markadetan lortu ditugun gizarte lorpenak ere berekin eramango dituela ematen du.

Aipatu beharrik ez dago administrazioen desordena dela-eta, gizarte sektorean lan egiten dugun Elkarteok diru faltaren ondoriozko lehenengo mozketak jasan ditugula.

Eta esaten dutenaren arabera, bide latza dugu egiteke...

Ahulenok beti ordaindu behar dugu egoera horien ondorioak; beraz, ***elkarrekin egon behar dugu eta gorputz eta arimaz egin behar dugu gure eskubideen alde, asko kostatu baitzaigu horiek konkistatzea.***

Ondorioak oso latzak izan daitezke talde batzuen etorkizunerako ezen, gustatu edo ez, gizartean oraindik gutxiengoa baikara.

Gure bizirautea arriskuan dago.

FEVAPASEN PROGRAMAK 2011. URTERAKO

GIZARTERATZEKO JARDUERAK

Aisialdirako hezkuntza Programak / Euskadin entzuteko desgaitasuna duten haurrei eta gazteei zuzenduta




LEKUNBERRI — SAN MIGUEL DE ARALAR / 11.02.12 / 15 parte-hartzaile

Asteburua HONDARRIBIAN — Gipuzkoa / 11.05.13-13 / 31 parte-hartzaile




Gazteen topaketa ZUHATZAKO IRLAN / 11.06.21-24 / 27 parte-hartzaile

Udalekuak ETXARRI-ARANATZEN, Nafarroan / 11.07.5-15 / 30 parte-hartzaile



BOLUNTARIOAK – Monitorea



Jarduera horiek guztiak ezingo genituzkeen egin elkarte federatuetan eta Fevapasen ditugun monitorea boluntarioen lanagatik eta lankidetzagatik ez balitz.

BOLUNTARIOAREN IRUDIA- Pertsona motibatua, konprometitua eta arduratsua

Azaroaren 5 eta 6an monitorea Prestatzeko egin dugun Ikastaroaren titulua da. Aurten

Vitoria-Gasteizeko Carlos Abaitua Gazteen Aterpean egin dugu.

5 pertsonak parte hartu zuten, bostek entzuteko desgaitasuna dute.



Urtxintxa Eskolako profesional batzuek ikastaroa eman zuten eta Zeinu-mintzairako interprete biek ikastaroa zeinu-mintzairan interpretatu zuten.

FAMILIAK

2011n, Fevapasek elkarteak, senideen eta desgaitasuna dutenen BIZI KALITATEA HOBETZEKO HELBURUAREKIN, jarraitu egin du ondokoak egiten:

Elkarte Federatuak koordinatzen, familiei arreta egiteko eta laguntzeko lana batera egiteko.

Ondoko esparruetara zuzendutako lana: 1.- Orientazioa eta Informazio eguneratu, zuzen, zabal eta zehatza ematera 2.- Laguntza psikologiko eta emozionala ematera eta, 3- Familiei informazioa eta prestakuntza ematera.

Hori guztia ondoko bidez: 1.- Arreta zuzena eta kasu bakoitzaren jarraipena eginez 2.- Banakako eskaintzak kudeatuz 3.- Gurasoetatik gurasoenganako laguntza 3.- Hausnarketara eta prestakuntzarako taldeak 4.- Laguntza psikologikoa 5.- Familien arteko topaketak 6.- Gizarterako jarduerak 7.- Aldizkako koordinazioa profesionalekin (otorrinolaringologoak, audioprotesistak, logopedak, hezitzaileak, etab.) 8.- Informatzeko eta prestatzeko hitzaldiak 9.- Sentsibilizatze jarduerak...

Fevapas INFORMAZIOA


OSAKIDETZA- OSASUN SAILA

2011. urtean Fevapas-ek zenbait gai garrantzitsu landu ditu Osakidetzarekin eta Osasun Sailarekin.

INPLANTE KOKLEARREN KANPOKO OSAGAIEN FINANTZAKETA

Maiatzaren 20ko SAS 1466/2010 Agindu nazionalaren arabera

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 2/2011 JARRAIBIDEA finkatu du eta horren bidez INPLANTE KOKLEARREN KANPOKO OSAGAIAK FINANTZATZEKO MEKANISMOAK ezarri ditu:



- * **BERRITZEKO MODUKO ELEMENTUAK:** Kanpoko prozesadorea 7 urtean behin - Mikrofonoa 4 urtean behin - Antena urtean behin.
- * **ESKAERA:** Zerbitzu ortoprotesikoa jaso duela adierazten duen **agiria**- gaixoaren ardura duen otorrinolaringologo espezialista **egindakoa**- Beti **medikuaren txostenarekin**- berriro beharreko elementuen **Aurrekontua**, Osasun Sailarekin lankidetzeta-hitzarmena duen establezimendu batek egina.
- * **NORA ERAMAN:** Lurralde Zuzendaritzaren Ikuskatzailetza Medikoa, han izapidetzeko.
- * **EBAZPENA:** Ondokoa jakinaraziko diote eskatzaileari: **1.- ONARTZEN BADA**, produktua erosi eta faktura eramango duela. **2.- ONARTZEN EZ BADA**, erreklamatu ahal izango duela.
- * **KONTUAN IZAN:** - **EZ dira finantzatuko** Osasun Sistema Nazionalaren esparrutik kanpo egin diren Inplanteen kanpoko osagaiak- **ETA BAKARRIK** finantzatuko dira alde bateko inplanteen osagaiak.



HAURREN GORTASUNA GOIZ DETEKTATZEKO PROGRAMA

Aurtengo urrian Osakidetzako eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko arduradunek Haurren Gortasuna Goiz Detektatzeko Programaren (HGGD) diseinu berria aurkeztu zioten FEVAPAS elkarteari. Programa hori 2012ko urtarrilean jarriko da abian.

Hipoakusia Goiz Detektatzeko Batzordearen (GODEPEH) gomendioei jarraituz, programaren hautaketa, diagnostikoa eta jarraipena egiteari dagokionez, horren kalitatea bermatu nahi da eta, horretarako, amatasun arloa duten zentro guztiek parte hartuko dute eta gainera, kasu bakoitza dokumentuen bidez islatzeko moduko Informazio Sistema bat izango dute.

Programa ONDOKO BIZTANLEEI ZUZENDUKO DA: EAEko jaioberri guztiak, sare publikoan, sare pribatuan edo beste leku batean zein beste Autonomia Erkidego batean.

JARDUERA LERROAK: Hautaketa egitea, Diagnostikatzea eta Tratamendua jartzea. Egon daitezkeen arrisku-faktoreen edo detektatutako Hipoakusia motaren arabera jarduera protokoloen BIDEZ.

Donostia Ospitalea INPLANTE KOKLEARRETARAKO ERREFERENTZIAZKO ZENTROTZAT hartu da



2011ean FEVAPAS zeinekin.....

Eusko Jaurlaritzako HEZKUNTZA SAILA: Urtarrilaren 25a/ urriaren 18a: Hezkuntza Saileko sailburuordearekin eta ikasle gorren Hezkuntza Batzordearekin bilerak. / hezkuntza-etapa ezberdinetan ikasle gorren jarraipena egitea. Baliabideak eta materialak. Laguntzeko figura berriak, Batxilergoko Curriculum, entzuteko desgaitasuna duen ikasleari egokituta...

OSAKIDETZA ETA EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA: Urriaren 17an bilera Osakidetzako eta Osasun Saileko zenbait zuzendariorde eta teknikariek informazioa jasotzeko eta ondokoa aurkezteko: - Haurren Gortasuna Goiz Detektatzeko Programa (HGGDP) Berria - Inplante Koklearrak- Laguntza teknikoak- Erreferentziako zentroak, etáb.

Eusko Jaurlaritzako GIZARTE GAIAK SAILA: Urtarrilaren 18a / azaroaren 30a: Sailak dituen diru-laguntzen inguruko agindu berriei buruzko informazioa eta sailean aurkeztutako proiektuen jarraipena egitea.

EITB: Martxoaren 29a.- bilera entitate horretako zuzendariarekin ematen den programazioaren erabilerraztasunean egin diren aurrerapenen berri emateko eta baita azpiztituluak dituzten programen kalitateari buruz eta geroko aurreikuspenei buruz hitz egiteko.

ARARTEKO: Apirilaren 12a / maiatzaren 17a / abenduaren 1: Euskadiko garraio publikoaren erabilerraztasunaren arloko ondorioei buruzko hitzaldi informatiboa eta gaien jarraipena- Fevapasen aurkeztutako kexak.

EDEKA: Fevapasek jarraitzen du Edekan (Desgaitasuna duten Pertsonen Ordezkarien Euskal Batzordea) lan egiten Desgaitasunaren inguruko beste Euskal Federazio batzuekin batera. Fevapasek Batzorde Exekutiboaren bileretan izan da (hilean behin) eta baita sortu diren lan batzordeetan ere. 2011. urtean parte hartu du eta lan egin du Desgaitasuna duten Pertsonen Ordezkarien Autonomia Erkidegoetako Batzordeen Kongresu Nazionala antolatzeko. Kongresu hori Bilbon azaroaren 24 eta 25ean egin da.

2011n FEVAPAS non...

- 1.- **Arartekoarekin HIZKETALDIA** "Arartekoaren erakundea" - Apirilaren 2an Bilbon eta Euskal Gorrak antolatuta.
- 2.- **Gizarte Lanaren IV Jardunaldiak** "Mendekotasunetik haratago" - Apirilaren 7an Vitoria-Gasteizen eta Arabako Gizarte Laneko Unibertsitateak antolatuta
- 3.- "Gizarte partaidetza eta Boluntarioak Europan" **Jardunaldia** - Irailaren 29an Bilbon eta Euskal Boluntarioen hiru udal agentziek antolatuta.
- 4.- "Haurren Gortasuna Goiz Diagnostikatzea- detektatzeetik bamean sartzera" **Jardunaldia** - Urriaren 20 eta 21ean Madril eta Fiapas-ek eta Codepeh-ek antolatuta
- 5.- "Genero-indarkeria Aniztasun Funtzionala duten pertsonengan" **I. Jardunaldia** - Azaroaren 7, 8 eta 9an Vitoria-Gasteizen eta Zuzenak-ek antolatuta.
- 6.- **Desgaitasuna duten Pertsonen Ordezkarien Autonomia Erkidegoetako Batzordeen Kongresu Estatala** "2011-2020 bamean sartzeko hamarkada bat" - Azaroaren 24 eta 25ean Bilbon



LAGUNTAILEAK



ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza
Familia eta Komunitatea Politikarako
Zuzendaritza